

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Durana eta Vitoria-Gasteizko hainbat zerbitzutara joateko gidaridun ibilgailuak, zerbitzu publikokoak edo enpresa pribatukoak kontratatzekeo dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileen aldaketa behin betiko onartzea

Hasierako onespeneren iragarkia 2025eko martxoaren 7ko ALHAOn argitaratu zen (27 zk.), eta erreferentziako espedienteari alegaziorik egin ez zaionez, osorik argitaratzen da, indarrean sar dadin.

DURANA ETA VITORIA-GASTEIZKO HAINBAT ZERBITZUTARA JOATEKO GIDARIDUN, ZERBITZU PUBLIKOKO EDO ENPRESA PRIBATUKO IBILGAILUAK KONTRATATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

1. artikulua. Oinarriak

Arratzua-Ubarrundia udalerrriak mila biztanle inguru ditu, eta hamaika herrigunetan sakabanduta dago. Udal-zerbitzuak Durana herrian daude, eta beste hamar herriguneeetan bizi diren pertsona guztiak bertara joaten dira, bai autoz, bai autobusez.

Gainera, izapide mediko-sanitarioak edo mota guztietako kudeaketa administratiboak egiteko, Vitoria-Gasteizera joan behar dute.

Herrigune guztiek ez dute autobus-linea erregularrik, eta linea hori dutenak ez datoz beti bat biztanleek beren izapideak egiteko eta kudeatzeko erabili behar dituzten tokietako ordutegiarekin. Hori dela eta, familiako kide batzuek lanorduak galdu behar izaten dituzte garraiobiderik ez duten pertsonen hitzorduetara joateko laguntzeko.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 14.4 artikulua aukera ematen die toki-erakundeei edozein jardura, zerbitzu edo prestazio gauzatzeko, baldin eta, toki-erkidegoaren intereserako garatuta egonik, eskumen propioen, transferituen edo eskuordetuen barruan ez badago, betiere bikoiztasun-kasuetan erortzen ez bada eta erakundearen ogasunaren finantza-iraunkortasuna arriskuan jartzen ez bada.

2. artikulua. Helburua

Dirulaguntzaren xedea da Arratzua-Ubarrundia auzoak Duranan dituen zerbitzuak (osasun-zentroa, udala, etab.) edo Vitoria-Gasteizko zerbitzu sanitarioak, administratiboak, banku-zerbitzuak eta abar erabili ahal izatea, garraiobiderik ez badu (ezarritako ordutegiarekin edo bere ibilgailuarekin bat egiten duen autobus-linea) edo gidatzeko aldi baterako ezintasunik badu.

3. artikulua. Erregimen juridikoa

1. Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzek, oinarri hauek ez ezik, honako arau hauek ere bete beharko dituzte:

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua.

- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

- Arratzua-Ubarrundiako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza orokorra.

- Aurrekontua gauzatzeko oinarriak.

2. Dirulaguntzak norgehiagoka-erregimenean emango dira, deialdi ireki baten bidez, aurrekontu-kreditua agortu arte. Honako printzipio hauen arabera emango dira dirulaguntzak:

- Publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.

- Finkatutako helburuak eraginkortasunez betetzea.

- Eraginkortasuna baliabide publikoak esleitzean eta erabiltzean.

3. Jarduera, programa, proiektu edo inguruabar berezi baterako dirulaguntza eskaera aurkezte hutsak honako hauek ezagutzea eta onartzea eskatzen du: oinarri hauek, Arratzua-Ubarrundiako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza orokorra, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, bai eta dirulaguntza mota horiei aplikatzekoak diren arau guztiak ere, zuzenak zein subsidiarioak.

4. artikulua. Aurrekontu-zuzkidura

Arratzua-Ubarrundiako Udalak zenbateko bat bideratuko du ekitaldi bakoitzean planteatutako eskaerei erantzuteko, 4412.480.009 aurrekontu-partidaren kargura. Ezin izango da dirulaguntzarik eman dagokion aurrekontu-izendapenik gabe.

5. artikulua. Hartzailleak

Onuradun izango dira udalerrian erroldatuta dauden pertsonak, baldin eta ibilgailurik ez badute edo aldi baterako gidatzeko ezinduta badaude, eta autobus-linea 2. artikuluan zerrendatutako zerbitzuetarako hitzorduen ordutegiarekin bat badator, bai joateko, bai itzultzeko.

6. artikulua. Eskatzaileen betebeharrak

- Arratzua-Ubarrundiako udalerrian erroldatuta egotea, gutxienez urtebeteko antzinatasunarekin. Antzinatasunari eutsi beharko zaio eskabideak ebatzi arte.

- Dirulaguntza behin betiko ebatzi arte udalarekiko zerga-betebeharrak ordainduta izatea. Ondorio horietarako, zuzenbide publikoko diru-sarreretatik eratorritako edozein zor hartuko da kontuan, geroratuta, zatituta edo betearazpena etenda duten zorrak edo zehapenak direnean izan ezik. Adingabeei edo legez ezgaituta daudenei dagokienez, tutoretza gauzatzen duten pertsonentzat ere bada betebeharrak.

7. artikulua. Diruz lagungarria den gastua

Duranako osasun-zentroan, Arratzua-Ubarrundiako Udalean eta Osakidetzan eta Vitoria-Gasteizko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen kontsulta-orduetan gidaria (zerbitzu publikoa edo enpresa pribatua) duen ibilgailu bat kontratatzeagatik sortzen den gastua izango da diruz laguntzeko modukoa.

Pertsona eta hilabete bakoitzeko gehienez 4 bidaiari/ibilbide lagunduko dira diruz.

Bidaiaren/ibilbidearen jatorria edo helmuga udalerriko udalerririk baten eta Durana edo Vitoria-Gasteiz herrien artekoa izango da.

Ibilgailua pertsona batek baino gehiagok partekatzen badute, horietako bati bakarrik emango zaio dirulaguntza.

8. artikulua. Eskaerak eta dokumentazioa

1. Eskabideak l. eranskinen eredu ofizialean aurkeztuko dira, hilerok, eta letra larriz bete beharko dira, argi eta irakurtzeko moduan. Tutoreek sinatuko dituzte eskabideak, baldin eta adingabeak edo legez ezgaituak badira.

2. Aurkezteko epea: eskatzaile bakoitzak hileko eskaera bat aurkeztu beharko du, bertan egindako bidaia/ibilbideen zerrendarekin.

3. Aurkezteko modua:

– Aurrez aurre udal-bulegoetan, 8:00etatik 14:00etara.

– Telematikoki, webgunearen egoitza elektronikoaren bidez: www.arratzua-ubarrundia.eus.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

- Enpresaren faktura edo tiket parekagarria, egindako ibilbidearen eguna, ordua, jatorria eta helmuga jasotzen dituenak.

- Hitzordura joan izanaren egiaztagiria.

- Diru-sarrera egin nahi den kontuaren entitatea eta IBAN, titularra eta dirulaguntzaren onuraduna ez badira.

9. artikulua. Eskaeren azterketa eta ebazpena

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, eskatzaileari eskatuko zaio 10 eguneko epean bete dezala, eta adieraziko zaio epe hori igaro eta dokumentazioa aurkeztu ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, ebazpena eman ondoren.

Alkatetzak hilerok emango ditu dirulaguntzak, aurrekontu-partida agortu arte.

10. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzek egindako gastuaren ehuneko 60ra arteko zenbatekoa izango dute.

11. artikulua. Beste dirulaguntzekiko bateraezintasuna

Deialdi honen bidez emandako dirulaguntzak bateragarriak dira helburu bererako jasotako beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin, betiere jasotako dirulaguntza guztien baturak egindako gastua gainditzen ez badu.

Lortutako dirulaguntzen baturak aipatutako zenbatekoak gainditzen baditu, gainfinantzaketaren zenbatekoarekin murriztuko da dirulaguntza, eta onuradunak dagokion zenbatekoa itzuli beharko dio udalari.

12. artikulua. Dirulaguntzen ordainketa

Ebazpena eman eta hilabeteko epean ordainduko da dirulaguntza.

13. artikulua. Laguntzen kontrola eta zuriketa

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluko 7. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz, dirulaguntza horiek emateko, eskatzaileak edo, hala badagokio, tutoreak deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatuko beharko da.

Hala ere, onuradunak udalari jakinarazi beharko dio kontzeptu horretarako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jasotzen dituela sortzen diren unean.

Laguntzak jasotzen dituztenei aplika dakizkiekeen itzulketen, zehapenen eta erantzukizunen araubidea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Arratzua-Ubarrundiako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzan ezarritakoa izango da.

14. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen erregimena

Arau-hauste eta administrazio-zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 52. artikuluan eta hurrengoetan eta udalak onartutako dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantzaren 14. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio, eta ordenantza horren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera zigortuko dira.

15. artikulua. Legeria gehigarria

Oinarri hauetan aurreikusten ez denerako, udalak onartutako dirulaguntzak eta laguntzak emateko ordenantzan, dirulaguntzei buruzko lege orokorrean eta hori garatzen duen erregelamenduan xedatutakoa beteko da.

Jendeak, oro har, horren berri izan dezan argitaratzen da.

Durana, 2025eko apirilaren 4a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE

ERANSKINA - ANEXO

DURANA ETA VITORIA-GASTEIZKO HAINBAT ZERBITZUTARA JOATEKO GIDARIDUN IBILGAILU BAT KONTRATATZEKO LAGUNTZA-ESKAERA / SOLICITUD DE AYUDA PARA CONTRATAR UN VEHICULO CON CONDUCTOR/A PARA ACUDIR A DIVERSOS SERVICIOS EN LAS LOCALIDADES DE DURANA Y VITORIA-GASTEIZ.

IZENA ETA ABIZENAK, EDO SOZIJATE-IZENA NOMBRE Y APELLIDOS O RAZÓN SOCIAL		NAN-AIZ-IFZ DNI-NIE-NIF	
ORDEZKARIA (IZENA ETA ABIZENAK) REPRESENTANTE (NOMBRE Y APELLIDOS)		NAN-AIZ-IFZ DNI-NIE-NIF	
KOMUNIKAZIO-JAKINARAZPENETARAKO DATUAK DATOS PARA LA COMUNICACIÓN- NOTIFICACIÓN			
Kalea Calle	Zk Nº	Pisua Piso	Herria Pueblo
Posta kodea Código Postal	Udalerría Municipio	Lurraldea Provincia	
Posta elektronikoa Correo electrónico	Telefono zk. Nº Teléfono	Mugikorraren zk. Nº móvil	

Jakinarazi Interesdunari Ordezkaritari / **Bide honetatik:** Posta arrunta Posta elektronikoa
 Notificar a Persona interesada Representante / Notificar por Correo postal Electrónicamente

AZALTZEN DU / EXPONE

Duranako osasun etxera joateko gidaridun ibilgailuak, zerbitzu publikokoak edo enpresa pribatukoak, kontratatzeke dirulaguntzen deialdiaren berri izan duela.

_____ko hilabetearen zehar ondorengo bidaiak/joan-etorriak egin dituela:

Jatorria Helburua

1.

2.

3.

4.

Udalarekiko bere zerga-betebeharrak egunean dituela. Adingabeen edo tutoretzapean dauden kasuan, betebeharrak hori tutoretzaren ardura duten pertsona guztiak egiaztatu behar dute.

Eta adierazten BAI / EZ duela bestelako dirulaguntzaren bat eskatu, honako erakundeari: eta BAI / EZ duela jaso dirulaguntza hori, honako zenbatekoarekin:€.

Que está enterado/a de la convocatoria de subvenciones para la contratación de vehículos con conductor/a, de servicio público o empresa privada, para acudir al centro de salud de la localidad de Durana.

Que durante el mes de _____, ha realizado los siguientes viajes/ trayectos:

Origen Destino

1.

2.

3.

4.

Que está al corriente en sus obligaciones tributarias con el ayuntamiento. En caso de personas menores o tuteladas, esta obligación se extiende a las personas que ejerzan la tutela.

Y declara que SI / NO, ha solicitado otras subvenciones para el mismo fin a y que SI / NO ha obtenido las mismas, por importe de€ en su caso.

ESKATZEN DU / SOLICITA

Kontuan hartzea deialdia ebazterakoan, eta, hala badagokio, dagokion dirulaguntza ematea.

Que se le tenga en cuenta a la hora de resolver la citada convocatoria, otorgándole la subvención que en su caso corresponda.

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA DOCUMENTACIÓN APORTADA

- Enpresaren faktura, edo baliokidea den tiketa, bertan ageri direlarik egindako joan-etorriaren eguna, ordua, jatorria eta helburua
Factura, ticket asimilable a factura, de la empresa en el que conste día, hora y origen y destino del trayecto realizado
- Hitzordura joan izanaren ziurtagiria.
Justificante de asistencia a la cita.
- Diru-sarrera egin nahi den kontuaren erakundea eta IBANA. Titularra dirulaguntzaren onuraduna ez den beste inor bada, hala adierazi behar da.
Entidad e IBAN de la cuenta en la que se desee que se realice el ingreso indicando titular en caso de que sea diferente a la persona beneficiaria de la subvención.

DATA ETA SINADURA - FECHA Y FIRMA:

	DATUEN BABESA
<i>Arduraduna</i>	Arratzua-Ubarrundiako Udala
<i>Helburua</i>	Hainbat jarduera sustatzeko dirulaguntzak ematea
<i>Legitimizazioa</i>	Datuen tratamendua legea bete beharrak eta/edo interesdunen baimenak legitimatzen du
<i>Hartzaileak</i>	Bildutako datuak Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari lagako zaizkio. Ez da lagapen gehiagorik egongo, legezko betebeharrak egon ezean.
<i>Eskubideak</i>	Interesdunak Arratzua-Ubarrundiako Udalaren (arduraduna) aurrean baliatu ahal izango ditu bere eskubideak. Helbidea: Uribea kalea 12, 01520 Durana. Datuen kontserbazioa legez agindutakoa izango da, datuen helburuaren arabera. Datuak ez dira erabiliko erabaki automatizatuak hartzeko.

	PROTECCION DE DATOS
<i>Responsable</i>	Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia
<i>Finalidad</i>	Concesión de subvenciones para la promoción de diversas actividades
<i>Legitimación</i>	El tratamiento de datos queda legitimado por obligación legal y/o el consentimiento de las personas interesadas
<i>Destinatarios</i>	Los datos recogidos se cederán a la Bases de Datos Nacional de Subvenciones. No habrá más cesiones salvo obligación legal
<i>Derechos</i>	La persona interesada podrá ejercer sus derechos ante el Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia. C/ Uribea, 12, 01520 Durana como responsable. La conservación de sus datos será la prescrita legalmente, según la finalidad de los mismos. Los datos no serán utilizados para elaborar decisiones automatizadas.

Arratzua-Ubarrundia Udala / Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia - Uribea Kalea, 12 01520 – Durana (Araba)